

Jan-edanak

Jan-edan-gaiaz idatzitako liburu gutxik sortu ditu iñoiz, orain-tsu argitaratu dan batek sortu dituan adiña esamesa ta iruzkin.

Liburuaren idazpurua *La Guía gastronómica de España* da, ta bere egillea Luis Antonio de la Vega.

Luis Antonio de la Vega au bilbaotarra degu, Aretxaga-kalean jaioa noski. Periodiko ta novela egille ezaguna, berak zuzentzen du aspaldidanik Madrid'eko *Domingo* asterokoa. Euskalerrria'ri dagozkan arlo ta gai ei buruz ere, bein baño geiagotan idatzitakoa degu Luis Antonio de la Vega. Esate baterako, orain ogeita amar-bat urte, *Euskalerrriaren-alde* aldizkarian-edo, argitara eman zuan zumaiar Baltasar Etxabe idazle ta pintatzalleaz eratutako lantxo ernagarri bat.

La Guía Gastronómica de España'ren apaingarriak ere erdi-euskaldun batenak dira: Lorenzo Goñi'renak. Gauza jakia da, marrazlari gor ospetsu au, Jaen'en jaioa izan arren, odolez beñepein, eta bere aitaren aldetik, naparra dala.

Iritz-emalle batzuek diote, Luis Antonio de la Vega'ren liburu berria, Julio Camba'ren *La Casa de Lúculo* ta Dionisio Pérez'en *Guía del Buen Comer Español* baño are ohea dala. Gure uste apala beste bat da. Balitekela auen mallakoa izatea, baño ohea ez.

Dana dala, EGAN'en urrengo zenbakian aztertuko degu zeatzago *La Guía Gastronómica de España* au, iñolaz ere merezi du-ta.

Bitartean ausnartu ezazu, irakurle, bertatik artuta ondoren ezartzen degun zatitxo au.

“Cada tiempo tiene su manjar. Hay la época de la angula, que para que un buen paladar le conceda beligerancia ha de proceder de Aguinaga la de Guipúzcoa y de La Isla la de Vizcaya. Estos *ipuches* del demonio poseen un sentido de la publicidad mucho más agudo que

nosotros, los sencillos *jebos*, que somos unos *coitaos* y unos hombres de Dios, y ya que no en las cazuelas, en la buena fama han hecho que sus angulas derroten a las nuestras. Publicidad y nada más que publicidad.

Como demonios de listos son los guipuzcoanos.

.....

.....

Un vizcaíno me decía:

—Estos *ipuches* la mar de talento tienen. Hasta para comprar sardinas son unos artistas, Nosotros, comparados con ellos, hasta *sinsorgos* resultamos.

—¿Pues si les vieras poner el besugo!

—¿Qué hacen, pues? A lo mejor lo pintan.

—Lo pintan y lo bordan.

—No me choca. Igual que *demoniñorris* son. Como *demoniñorris*.

—¿Viva la alegre Guipúzcoa...! Ya me está haciendo dudar si las angulas de Aguinaga serán mejores que las de La Isla.”

* * *

Laister argitaratuko du Jose Maria Busca Isusi'k, jan-edan-gaiaz tajututako liburu ernagarri bat.

Gutxi-gorabeera, liburuaren idazpurua auxe izango da: *Los alimentos en la Cocina Vasca*. Ta *Biblioteca Vascongada de los Amigos del País* deritzan bilduman azalduko da.

Arlo auetaz Busca jaunak dituan jakinduri ta trebetasuna ezagutzen ditugun guziok, irrikitzen gaude bere liburua irakurtzeko.

* * *

Azkeneko udarako egun batez, jan-edan-kontu auetan ainbeste —*aldrebes*— dakiten ipar-amerikano orietako batek, Donostia'ko gure adiskide bati, pozik eta alai, esan zion:

—Aizazu, lagun: berealdiko *ardo zuri* on bat topatu det.

—Ona, beraz?

—Bai, txit ona ta, gañera, oso indartsua.

—Ta, jakin al-diteke *ardo zuri* orren *marka*?

—Ez naiz *markaz* gogoratzen, baña botillak gañean *tximu* bat daramaki pintatuta...

A. A.